

Amodioa da geratzen den bakarra



Amodioa da geratzen den bakarra

Jatorrizko izenburua: *O único que queda é o amor*

Egilea: Agustín Fernández Paz

Itzultzailea: Uxue Alberdi

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Elkar

MIKEL GARMENDIA

Hamar kontakizun laburrek eta azalpen-eranskin batek osatzen dute idazle galiziar ezagunak General argitaletxean argitaratutako *O unico que queda é o amor* liburuxka xarmanta. Orhan Pamuk-ek bere *Elurra* maisu-lanean erabilitako hitzak baliatuz eratu du Agustín Fernández Paz-ek berriki Espainiako Haur eta Gazte Literatura Sari Nazionala eskuratu duen lana. *Maitasuna da geratzen zaigun bakarra* –hala euskaraturik heldu baitzaigu Uxue Alberdi itzultzailearen eskutik– liburuko hari nagusia amodioa dela esan genezake. Motz geldituko ginatke, ordea, kontua besterik gabe horretan utziko bagenu. Desamodioaz ere ari zaizkigu kontakizunetako pertsonaiak, beren ahotsez batzuetan, kanpoko narratzailearenaz bestetan.

Amodioa zentzu zabalean, beraz, baita, azken azalpenean adierazten zaigunez, liburuenganakoa ere. Eta liburuenganako amodio bera ere zentzu zabalean, denek baitute leku berezi bat intertestualitatearen bidetik eraikitako altxor-kutxa honetan: mundu zabaleko eta garai desberdinetako idazleen testuek, itzultzaileen lanek, ilustratzaileenek... Eta ilustratzaileez ari garela, aipu berezia egin behar, liburuxka hau hornitzen duten Pablo Audell-en ilustrazio fin bezain adierazkorrei.

Amodio platoniko hutsak aurkituko ditugu, batetik, kontakizun batzuetan: "Isiltasun distiratsua", "Argazki bat kalean", "Hitzezko ibai". Bestetik, lehen maitemintze inozo eta garbiak: "Abuztuko maitasuna", "Memoriaren ibaiak", "Hainbeste urte eta gero". Baita heriotzaz haratago doazenak ere: "Argitasun arraro hau", "Istoria mamu bat". Edo, orobat, elkarrekin zerikusirik ez duten pertsonen artekoak: "Filateliaren goratarrea". Guztietan ere, mezu berbera helaraziko zaigu, izenburuarekin estuki lotua: emaitza gorabehera, maitasunaren bidea egitea bera da merezi duena. Eta bide hori egiteko laguntza, aholku edo dena delakorik ere iradokitzen zaigu kontakizunetan, hala nola pasarte honetan: "Traidorea da memoria, nahi duen gisara joan eta etortzen da, eta jolasean aritzen da gurekin. Ezin hari aurka egin. Baina irudimena fidelagoa da, errazago menderatu dezakegu, eta nahieran erabili."

Konplexurik gabe egindako bertsioa, ondo kurritzen duena, eskaini digu Uxue Alberdi itzultzaileak. Oso estimatzekoak dira itzulpen-lanetan halako ahaleginak eta, aukeran, tonu egokia, efektuak eta, azken batean, musika atsegina bilatze horretan, nago ez ote geniokeen sorburu-hizkuntzari baino xede-hizkuntzari oraindik ere gehiago begiratu behar.